

Proiektua: LIFE IREKIBAI. Ibai irekiak: *Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza (LIFE 14 NAT/ES/00186)*

BILERA AKTA – Lan Taldearen 1. Tailerra. “Iragazkortze lanak”

<p>EGUNA: 2016ko apirilaren 28a LEKUA: Doneztebeko Herriko Ostautua HASIERA: 17:00 AMAIERA: 20:00</p>	<p>Helburua: Elkarrekin berrikustea, kartografia eta ekintzen fitxak erabiliz, ibaiko oztopoak ezabatze jarduketak, eta zalantza oro argitzea. Neurri horiek eztabaidatu eta aztertzea, eta bakoitzak bere ikuspuntuaren arabera proposamenak egitea, neurriak hobeki ezartzeko alderdien inguruan.</p>
--	--

Bertaratuak

Maite	Arzuaga	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	BERako TOKI ONA BHI	Bera
Xabier	Petirena	Foru Administrazioa	Mendizainak	Ingurumeneko Mendizaintza.	Oieregi
Martín	Urrutia	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	MENDAUR DBH Doneztebe	Doneztebe
Iñigo	Agesta Latasa	Toki Administrazioa	Garapen agentziak	CEDERNA - GARALUR.	Lesaka
Lorea	Flores Compains	Toki Administrazioa	Udalak	LESAKAKO UDALA	Lesaka
Itziar	Almárcegui Artieda	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkargoak	COLEGIO OFICIAL DE BIÓLOGOS	Iruñea
Amaia	Angulo Rodeles	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkargoak	SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Iruñea
Ana	Urtasun Idiazabal	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkargoak	Nafarroako Ingurumen Zientzietako Elkarte.	Iruñea
Rafa	Miranda Ferreiro	Adituak	Adituak	Nafarroako Unibertsitatea	Iruñea
Gaizka	Aranguren	Bertzerik	Ekoiztetxea	Labrit Multimedia	Iruñea
Alfredo	Zugarramurdi Santesteban	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Doneztebe
Sofia	Sapuppo	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Doneztebe
Ana	Altzuri Lasarte	Arrantza	Arrantzale Elkarte	Baztango Arrantzaleen eta Ehiztarien Kirol Elkarte	Elizondo
Martín	Apechechea Iribarren	Arrantza	Arrantzale Elkarte	Baztango Arrantzaleen eta Ehiztarien Kirol Elkarte	Ornoz Mugairi
Javier	Balda Jauregi	Arrantza	Arrantzalea	Izokin arrantzalea	Ornoz Mugairi
Carlos	Gallo	Arrantza	Arrantzalea	Izokin arrantzalea	Iruñea
Lorentxo	Jaurena	Arrantza	Arrantzale Elkarte	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte	Bera
Prudencio	Quiroga	Arrantza	Arrantzale Elkarte	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte	Bera
Jorge	Teniente Vallinas	Arrantza	Arrantzale Elkarte	AEMS Ríos con Vida	Sarriguren
Manuel	Germán	Arrantza	Arrantzale Elkarte	ANAPAM. Asoc. Nav. Pescadores a Mosca	Burlata
Miguel Angel	Belza Pérez	Industria sektorea	Errotak	Donamariako errota	Donamaria
José	Ardaiz	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ehiza eta Arrantza Atala.	Iruñea
Ignacio	Bergara Bergera	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Cesar	Pérez Martín	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Nekane	Vizcay Urrutia	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Pedro	Castillo Martínez	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Eva	Zaragüeta	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Luis	Sanz Azcarate	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Ana	Varela Alvarez	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea

Aztergaiak

- Ongietorria
- 1700 Ibaiko oztopoak ezabatzearen ondorio orokorrak. Luis Sanz. GAN.
- 17:15 Presak iragazkortzeak arrain espezieetan duen eragina. Jose Ardaiz. Ehiza eta Arrantza Atala. Nafarroako Gobernua.
- 17:30 IREKIBAI Proiektuaren aurkezpen orokorra eta lau iragazkortze lanen azalpen zehatza. Pedro Castillo. GAN.
- 18:00 Talde lana. Eztabaida
- 20:00 Amaiera



Aurkezpenetan solasgai izaniko gaiak

- Ana Varelak **eskerrak eman** dizkie tailerrera bertaratu direnei, eta tailerreko parte-hartzaileen **aurkezpen txanda** egin da.
- Luis Sanzek aurkezpenean **Life Irekibai proiektua** laburbildu du: jarduketa eremua, aurrekariak, egutegia, etab., eta zer-nolako ondorioak izanen diren ingurumenaren aldetik proiektuaren lanekin onura jasoko duten funtsezko espezieetan. Bertze presa batzuk eraistean zer gertatu den azaldu du, eta izokin populazioen aurrekariak ere bai.
- Jose Ardaizek azaldu du zer-nolako ondorio kaltegarriak dituzten presek eta presa txikiak arrain espezieengan, eta orain arte Bidasoa ibaian eginiko iragazkortze lanen emaitzak.
- Pedro Castillok iragazkortze proiektuak azaldu ditu zehatz-mehatz (prestatu direnak), eta era berean, oraindik prestatu ez direnak, aurrekontua barne, eta zer lan zehatz egingen diren.
- Ana Varelak **Parte-hartze Plana** azaldu du, hots, helburuak, parte-hartze mailak, faseak eta parte-hartze Prozesuaren lehen fasean garatu beharreko lan guztiak.

Galderen txandan, galdera hauek egin dira:

Endarlatsako presa

Galdetu da aukerarik ote dagoen Endarlatsako presan dauden 3 uhateka irekitzeko, eraispenak zer ondorio dituen ikusteko.

Azalpenak:

- Jose Ardaizek adierazi du ez dela irtenbide ona, uhate bakarra altxa bailiteke, erdikoa, bertze biak ez baitira erabilgarriak. Horrela, uhate horretatik presio handiko emaria aterako litzateke, eta horren ondorioz, espezieek ezinezkoa izanen lukete huraxe erabiltzea presa gainditzeko.
- Azaldu du presa eraistek bertzelako onurak izanen dituela, gainditzeko modua izateaz gainera, hala nola birsortu egingen direla habitat ezin egokiagoak espezieak ugaltzeko, ibaiaren dinamika lehengoratzeko dela...
- Adierazi du, halaber, kostu handiagoa duela arrain eskala bat eraiki eta mantentzeak, erabiltzen ez den oztopoa eraistearen aldean.

San Tiburtzioko presa

Parte-hartzaile batek erran du 2009aren bukaeran, arraina zimenduen azpitik igarotzen zirela, higatua zegoelako, eta jabeek zuloa estali zuten, inori baimenik eskatu gabe, ez Konfederazioari, ez Doneztebeko Udalari. Galdetu du zer urtetan iraungiko den presaren emakida, eta kezka agertu du, presa ez baita legezkoa, eta erran dute diseinu-huts bati zor zaiola, aurreikusia zegoena baino aunitzez ere emari handiagoa duelako.

Azalpenak:

- Uraren Zerbitzuko Zuzendariak erantzun du arazo hori aztertu eta ikusiko dela nola konpondu. Europako Proiektu bat eskatu da (POCTEFA), Bidasoan gertatzen diren uholdeak kudeatzeko. Ematen badute, aztertuko da neurriak hartzea, arazo hori aztertu eta hobetzeko.

Izokinkumeen populazioa

Galdetu dute **izokinkumeen jaitsieraren arrakastaren** berri ote dagoen, eta horietatik, zenbat diren birpopulatuak,

eta zenbat, basatiak. Galdetu dute, halaber, birpopulaketan arrakastaren ehunekoaren berri ote dagoen, zer eremutan egiten den.

Azalpenak

- Kopuru zehatza ez da jakina, ez direlako izokin gazteak maneiatu nahi ubideetan metatuak daudenean, oso delikatuak baitira. Zenbaketak egitea da asmoa, baina ukitu gabe. Kalkulatu ahal izanen da zenbat izokin gazte birpopulatu diren (ehunekoetan), basatien aldean, RST tranpa paratzen denean.
- Jakina da arras beheiti askatzeak ez duela arrakasta handirik, eta gainera, ez da esku hartu nahi arrabaleku naturalean, aleen aukeraketa ez egiteko. Uretan goiti askatzen dira, haien kasa iristerik ez duten tokietan. Jakina da urte batzuetan portzentajea % 50 izan dela. Ikusten ari da, halaber, birpopulatuaren ehunekoa behera doala, baina aldagarria da urte batetik bestera, populazioa handitzen ari baita (basati kopurua, zehazki), iragazkortze lanen ondorioz, birpopulatu kopurua berbera baita. Erran da, halaber, ibaiko hazkuntza ezberdina dela, arrain-haztegiak dituzten zainketez bestelakoa.

Nazetako presa

Presa horrek eragiten dituen arazoak izan dira aipagai, Endarlatsako eta Berako presak eraitsita ere, presa horrek bere horretan iraunen duela, eta zenbait parte-hartzailek erran dute ez omen duela emari ekologikoa betetzen. Inork erran du Endarlatsako presa azpiko osina ezabatzearen ondorioz, litekeena dela izokinak Nazetako presaren azpian biltzea. Are gehiago, parte-hartzaile batek erran du emari ekologikoak betearazten bazaie, litekeena dela errentagarria ez izatea jabearentzat.

Azalpenak

- Erantzun da Nazetako presan ez esku hartuta ere, ona dela beste bi presak eraistea, habitat naturalizatua areagotuko baita, eta espezieak ez duelako horren ahalegin handia egin beharko ibaian goiti igotzeko.
- Azaldu da, halaber, Se Irun-Endara Zentralaren (Nazetako Zentrala) jabeekin lanean ari dela. Emari ekologikoak errespetatzeko arazo horik ikusita, Uraren Zerbitzuak lagunduko die aipatu emariak ongi kontrolatu eta gainbegiratzeko, ur-ibilguan neurtegia jarritz, eta ikusizko eta berehalako zaintza sistemak paratuz, hala nola ibilguan erregeletak paratzea, emari ekologikoa betetzen dela ikusteko. Jabeek, beren aldetik, hitza eman dute sentso motaren bat paratzeko, ubideko uhatearen irekiera erregulatzeko, erregeletan markatzen den mailarekiko.

Ingurumen emariak

Azaldu da, halaber, ez dagoela argi presa zaharrek ingurumen emariak bete behar ote dituzten.

Azalpenak:

- Erantzuna: plan hidrológico berrietan partikularrarekiko “hitzarmena” edo negoziazioa bildua dago.

Taldeetan eginiko lanaren ondotik, gai hauek jaso dira aztertzeko, bai eta proposamen hauek ere:

1. Taldea. Kideak: Rafael Miranda, Carlos Gallo, Martín Urrutia, Prudencio Quiroga, Lorentxo Jaurena eta Miguel Belza

Azterketa:

- Oro har, proiektua ongi ikusi dute. Taldekide batzuek zalantzak dituzte Endarlatsako presaren eraistearen eraginkortasunaz, aitzinetik presa bat baitago, eta gibeletik ere (Nazetako presa), eta azaldu dute Endarlatsan duten aterpea kenduko zaiela, eta Nazen presekin aurkitzeko arazoa aitzinatuko diezula.

Proposamenak:

- Endarlatsako presa eraisteari lotua, hots, lanak baliatzea Endarako errekarako sarbidea errazteko, urak presatik behera isurtzen ditu ezkerrean; gaur egun, bertan legarra metatua dago.
- San Martin presa eraistea lehenestea, segurtasunarengatik eta uholde arriskuarengatik.



2. Taldea. Kideak: Manuel German Maite Arzuaga, Iñigo Agesta eta Ana Altzuri

Azterketa:

- Kideak, oro har, ados daude proiektuarekin, baina batzuek zalantzan jarri dute Endarlatsa eraistek ukituko ote duen izokinendako ur kantitatea Nazen presatik goiti.

Proposamenak

- Presa guztietako lanak etengabe egitea; behin makinak hasitakoan, lanak buka ditzatela, ahalik eta eraginik txikiena sortzeko.
- Proiektuaren jarraipena egitea, eta lanei buruzko emaitzak, eskuratu ahala, argitaratzea.

Azalpenak:

- Erran da, halaber, **lanak etengabe** eginen direla, onuragarria baita guztiontzat, baina faunak behar dituen gauzak kontuan harturik, gehiegi ez nahasteko.
- Proiektuaren jarraipenari eta emaitzei dagokienez, gogoratu da hurrengo tailerretan kontserbazio-ekintzen jarraipen-lanak aztertuko direla, eta emaitzak zabaltzeko ekintzan aurreikusia dagoela proiektuaren bilakaeraren berri emanen dela, huraxe garatu ahala.

3. Taldea. Kideak: Alfredo Zugarramurdi, Ana Urtasun, Sofía Sapuppo, Amaia Angulo eta Javier Balda

Azterketa:

- Irudi zaie 4 ekintzak ibaia lehengoratzeko hasiera direla, etorkizuneko belaunaldiek ibai hobea izan dezaten.
- Endarlatsako presa: galdetu dute aukera “bigunagorik” gogoan hartu ote diren, naturalagoak, ezponda egonkortzeko, lubeta ezabatuta, eta bioingeniaritza teknikak aurreikusita.
- Endarlatsako presa eraisten ari den makineria baliatzea, bide berdean dauden higadura arazoak konpontzeko.

Proposamenak

- Emari ekologikoen erregimena bermatzea, emakida iraungiak berrikusteko plana eginez, eta gainera, ibaia hobetzen jarraitzeko.
- Arraiozko presa; ez da erabiltzen, eta ea ezabatu ote daitekeen.
- Ibaiko uraren kalitatea Donezteben, unean uneko isurpenengatik.

Azalpenak:

- Endarlatsako presako ezponda egonkortzeko pentsatu den konponbideari dagokionez; adierazi da presaren kokapenaren ibai-ohere harritsuaren topografia ikusita, ura eskuinaldean metatuko dela, ibai-ohere alderik sakonena delako, eta errepedearen bultzadari eutsi behar zaio, etab. Horregatik, profil hidrodinamikoak eginen da, eta era berean, ezkerrean, ibai-ohereak goragune bat dauka, eta horren eraginda, uraren energia altua izanen da, eta horrek bioingeniaritza lan oro hondatuko luke uhaldi garaian; horregatik da beharrezkoa da erabaki den irtenbide teknikoak.
- Endarlatsa aldean higatua dagoen bide berdea konpontzeari dagokionez, erran da baloratuko dela proiektuaren helburuekin bat ote datorren, edo bestelako esparruan gauzatu behar ote den, edota bitarteko propioekin.

4. Taldea. Kideak: Jorge teniente, Xabier Petirena, Martín Apecechea, Lorea Flores eta Gaizka Aranguren:

Azterketa:

- Kide guztiak ados dira proiektuan aurreikusitako kontserbazio lanekin, Endarlatsako eraistekin izan ezik; hiru alde daude, eta bik zalantzak dituzte.

Proposamenak

- Ez erabili tubex materiala aldaxkak landatzeko, ez baita biodegradagarria.
- Donamariako jabearekin presaren eraispena negoziatzea, edo bestela, eskala bat paratzea. Badago Txarutako erreka ipar presaren jabearekin negoziatzeko aukera; beraz, eskala bat egiteko aurreikusia zegoen aurrekontua konpentsazio gisa erabil dadila, erabiltzeari utz diezaion, eta presa eraitsi dadin. Proiektuaren zuzendaritzak erantzun du aurreikusitako aurrekontuak ez zuela konpentsazio hori aurreikusten, zer egin daitekeen aztertzea baizik.
- Ez berritzea Irun-Endara presaren emakida, eta oro har, ezta bat ere.
- Ubideetan babes-saretak paratu behar izatea, fauna turbinetan ez sartzeko.

Azalpenak



- o Era berean, esan da orain ez dela gehienetan tubexik erabiltzen, baina kontuan hartuko dela.


Azkenik, Anak Miguel Belzari eman dio hitza, hau da, **Donamariako errotaren** jabeari, eta hark erran du energia elektrikoa sortzeko eta errotarako duela emakida, eta erabilerak pribatuak direla, eta eskatu du alda dadila informazioa banatu den dokumentazioan. Azaldu du prest legokeela azterketa egiteko, baina gaineratu du arazoa dagoela errepidea eraikitzeagatik gertatu den jautzia.

Tailerrean landu diren 4 neurrien gaineko balorazio galdetegia banatu da, eta saio bukaeran jaso da. Emaitzak akta honen eranskinean daude.

Eta saioa bukatutzat jo da, 2016ko apirilaren 28an, 20:00etan.

1. ERANSKINA

2. Txarteletan eta horma-irudian bildutako azterketak eta proposamenak, talde lanaren ondotik:
3. Berako Ehiza eta Arrantza elkarteko buru Lorentxo Jaurena jaunak e-mailez eginiko proposamenak, hilaren 29an, ortzirala 18:00etan.
4. 4 neurrien balorazioa koloretan (onarpen mailaren galdetegia)
5. Onarpen mailaren galdetegietako oharren ataletik ateratako proposamen eta iruzkinak.
6. Proposamenen laburpena



1. Txarteletan eta horma-irudian bildutako azterketak eta proposamenak, talde lanaren ondotik:

	AZTERKETA	PROPOSAMENAK
ENDARLATSATA	Oro har, jarduketaren balorazioa ona da, zalantza hauek daudela: <ul style="list-style-type: none"> - Ur kantitatea eraispenaren ondotik, ea ur aski izanen ote den izokinentzat nazetako presatik goiti (Irun-Endara) - Ezabatuko da orain presan duten aterpea - Egiazki izanen al da horren eraginkorra oztopo hori eraistea, aitzineko presa egonik (Irun- Endara), Nazetako presa? - Beharrezkoa al da Endarlatsako lubeta-horma zimendatzea? 	<ul style="list-style-type: none"> - Endarako errekarako sarbidea erraztea (badago sedimentu metaketa) - Proiektuaren eremuan bide berdea konpontzea, neurri konpentsatzaile gisa - Bioingeniaritza irtenbideak gogoan hartzea, “bigunagoak” ezpondak egonkortzeko?)
BERA	Berako presa eraistea ona da	- Eraispina 2016ra aitzinatzea, lehenbizi, erabiltzen ez delako, eta bigarrenik, herrian uholdeak eragiten dituelako.
TXARUTA	Txarutako ipar presako eskala anbizio handirik gabea da Txarutako hegoaldeko presa eraistea ona da	- Presa eraistea eskala egin beharrean
GENERAL	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuko jarduketaren balorazio ona, abiaburua izanen baita ibaiek etorkizun hobea izan dezaten. - Arraiozko presaren azterketa - “Gure iritzi, azaldutako neurriak onak dira. Proiektu horien ondorioa etorkizun hurbilean ikusiko da, eta etorkizuneko belaunaldiek ikusiko dute. Ezin gure xedea ereitea izan ... uzta bildu arte itxoin behar da”. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak etengabe egitea eta ingurumena errespetatuta - Lanen jarraipena egitea eta emaitzak argitaratzea - Ibaiko emari ekologikoen erregimena bermatzea - Landareak aldaxken bidez landatzea. Ez erabili de tubexik - Aurreikuspen plana egitea, gainerako presetan esku hartzeko: <ul style="list-style-type: none"> o Egungo emakidak ebaluatzea, baloratu noiz iraungitzen diren o Epe ertain luzera jarduketa plana egitea - Negoziatzen saiatzea ez dadila Irun-Endara emakida berritu - Ubidetan saretak paratzea - Doneztebeko saneamendu/euri isurpen arazoak moldatzea (Nilsa) - San Tiburtzio presa: emakida ez berritzea (2025) eta ezabatzea
ITUREN	Iturengo presa eraistea ona	

Berako Ehiza eta Arrantza elkarteko buru Lorentxo Jaurena jaunak e-mailez eginiko proposamenak, hilaren 29an, ortzirala 18:00etan (hitzez hitz)

Baztan-Bidasoa aldeko alkate, elkarte eta arrantzaleen bilera laburpena. Beran egina, 2016ko apirila

- 1) Lehenbizi, San Martingo presaren eraispina lehenestea, ez baita erabiltzen, herrian uholdeak eragiteagatik, eta ubidea zigilatzea, iragazpenik eta hondoratzerik ez izateko
- 2) Endarlatsako presaren berehalako eraispina atzeratzea, presako uhatearen irekierarekin simulatuz, eraistek zer albo-ondorio izanen lituzkeen aztertzeko
- 3) Amuarrain birpopulaketak berriz ere egitea, Mugairin Bidasoa lerroa irekita.
- 4) Berehala ubarroi eta koartza izurriteen aurkako jarduketak egitea, ibaiko espezieen biziraupenerako (hots, amuarraina eta izokina).

Xabier Petrirenak (hitzez hitz), maiatzaren 10ean, asteartea, 8:53ean igorria

Egunotan pentsatu eta pentsatu aritu naiz Txarutako ipar presaz (Donamaria). Zaila iduri du presa horri irtenbidea aurkitzeko (errepidetik hurbil baitago, zubiak...). Gainera, urra urtean egun gutxitan aprobetxatzen da. Gehienez 5 egunez, ziur aski... Nire ustez, ekintza horren aurrekontua baliatu beharko genuke, eraitsi genezakeen bertze presa batera. Konparaziora, Donamariako Bentetako presa (Ezpelura erreka) edo Eratsungo Arrain-haztegiko presa, ez baita erabiltzen (Ezkurra ibaia).

3. 4 neurrien balorazioa koloretan (onarpen mailaren galdetegia)



Lan Taldeak zer pentsatzen duen 1. Tailerrean eztabaidatutako proiektuko jarduketez:
Hurbilketa kualitatibo bat koloretan...

4. Onarpen mailaren galdetegiaren oharren ataletik ateratako proposamen eta iruzkinak.

Euskaldunen taldeak ahalbidetu. (Bestela denok, beti espainolez) Gure taldean 5etik 4 euskadunak ginen, baina espainolez egin behan izan dugu). Paperetan euskara 2. Badoa, ez du ezertarako balio.

Traducción : Posibilitar que haya grupos en los que se pueda hablar en euskera (sino todos siempre hablamos en español). En nuestro grupo de 5 personas 4 éramos euskaldunes. Si la documentación en euskera va en segundo lugar no sirve para nada..

Nazetako presako konponbideari heltzen ez zaion bitartean, uste dut ez dela ona 50ekoa eraistea; ez diete-eta hobekuntzarik ekarriko arrainei.

C9n errotaren jabearekin hitzartzea, erakutsi duen prestasunagatik.

Ez zementatzea Endarlatsako lubetaren % 10 → Hesola bizidunak goialdean, lubetak.


Endarlatsako presaren eraispenean bakarrik egon da eztabaida; izokin arrantzaleek zalantzak dituzten izokinean izanen dituen ondorioez. Baina, nazioarteko esperientziak eta ezagutza zientifikoak huraxe eraistearen alde egiten dute.

Emari ekologikoa gauzez ere kontrolatzea

Uste dut ibaiaren erabilera guztiak ikusi behar ditugula, eta proposaturiko aldatetekin batera gure ohiturak ere aldatu beharko genituzke, energiari dagokionez.

Ez litzateke ona baliabide hidroelektrikoak ezabatzea energia kaltegarriagoan mesedetan.

Testua zuzentzea: Energiarako emakida: errota eta energia elektrikoa. Gaur egun, errota da. Kendu aisia xedeak, eta paratu "Errota".



5. Proposamen laburpena

Gaia	Zk	IREKIBAiko jarduketak	Proposatzailea	
			Tailerrean eztabaidagai	Bertze bide batzuk eztabaidarik gabe ¹
Presak	1	Endarlatsa: presako uhateak irekitzea.	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte	
	2	Endarlatsa: nazioarteko esperientzia eta ezagutza zientifikoa ikusita, eraista gomendagarria da.		J.T
	3	Endarlatsako presa: eraistek sor zitzakeen albo-ondorioak aztertea. Haren eraispena atzeratzea		Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte
	4	Berako presa: haren eraispena 2016ra aitzinatzea, segurtasunagatik eta uholde arazoengatik		Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte
	5	Berako presako ubidea zigilatzea iragazpenik eta hondoraterik ez izateko		Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte
	6	Txarutako oztopoak: Donamariako Errotaren jabearekin negoziatzea presaren eraispena negoziatzeko, edo kasua bada, eskala bat paratzeko (eta/edo diruz konpentsatzea eraispenerako).	4. taldea	
	7	Txarutako ipar presa eraistearen ordez, bertze presa bat egitea. Adibidez: Donamariako Bentetako presa (Ezpelura erreka) edo Eratsungo arrain-haztegiko presa, ez baita erabiltzen (Ezkurra ibaia).		X.P
Lanak	8	Lan-erreformak era etengabeak egitea, behin makinak hasita lana bukatu arte.	Baztango Ehiztari eta Arrantzale Elkarte	
	9	Endarlatsako lanetan, bioingeniaritza teknika aurreikustea (Ez zementatzea lubetaren % 10; hesola bizidunak goialdean, eta lubetak).	2. Taldea Nafarroako Ingurumen Zientziak	
	10	Ez erabiltzea tubex landareak landatzean, ez baita biodegradagarria.	4. taldea	
	11	Lanen jarraipena egitea eta emaitzen berri ematea	2. taldea	
Parte-hartzea	12	Tailerretan aukera ematea, talde bateko hizkuntza euskara izan dadin.		G.A.
	13	Banatzen den dokumentazioan lehenik euskarazkoa jartzea, eta gero, gaztelaniazkoa.		G.A.

Gaia	Zk.	IREKIBAI proiektuaz kanpoko jarduketak	Proposatzailea	
			Tailerrean eztabaidagai	Bertze bide batzuk eztabaidarik gabe ¹
Presak	1	San Tiburtzio presa: huraxe begiratzea hobeki funtziona dezan. Eta emakida ez berritu (2025) eta ezabatzea.	Ibaiertzeko auzokidea A.Z.	
	2	Arriozko presa: ezabatzea, ez baita erabiltzen	3. taldea	
	3	Nazetako presa (Irun-Endara): presaren emakida ez berritzea eta, oro har, emakida bat bera ere ez berritzea. <i>Nazetako presako konponbideari heltzen ez zaion bitartean, uste dut ez dela ona 50ekoa eraistea; ez diete-eta hobekuntzarik ekarriko arrainei.</i>	4. taldea	J.B
	4	Ubideetan babes-saretak paratu behar izatea, fauna turbinetan ez sartzeko	4. taldea	
Legarrak	5	Arrainak Bidasotik erreketan errazago sartzeko, elkartzeko diren tokian metaturiko legarrak ezabatuta. Adibidez, Endarako erreka (Endarlatsa ondoan)	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte 1. taldea	
Bide Berdea	6	Endarlatsako presa eraisteko makineria aprobetxatzea, bide berdeak dauden higadura arazoak konpontzeko. Konpentsazio neurria	3. taldea	
Ingurumen emariak	7	Emari ekologikoen erregimena bermatzea, emakida iraungien berrikuspen plan bat eginez, etorkizunean lehengoratzeko. Epe ertain-erdira jarduketa plan bat egitea.	5. taldea	
	8	Emariak gauez ere bete daitezela kontrolatzea	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte	
Uraren kalitatea	9	Doneztebeko isurpen arazoak moldatzea. Ibaiko uraren kalitatea hobetzea Donezteben, uanean uneko saneamendu/auri isurpenek eragindakoak. Araztegia ez baitabil ongi. Konponbidea Nilsarekin bilatzea.	3. taldea	
Arrantza	10	Amuarrain birpopulaketak berrituz egitea, Bidasoa lerroa Mugairin irekita		Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte
	11	Berehala ubarroi eta koartza izurriten aurkako jarduketak egitea, ibaiko espezieen biziraupenerako (hots, amuarraina eta izokina).		

¹ E-mailez tailerraren ondotik, eta onarpen mailaren galdetegiko oharren atala